

# BOTERERA HELTZEN LAGUNDU ZIOTEN **KAZETARIEI ASKATASUNA** **MURRIZTEN DABIL MACRON**

Kazetarien eskubideen murrizketa bortitza dakarren “Segurtasun globala” deitu legea Frantziako Parlamentuan da. Prentsa askatasuna bermatzen duen 1881eko legearen kontra Emmanuel Macron presidentek buruturiko eraso bat gehiago dugu hau. 2017an boterera helduz geroztik emandako eraso hauei begira jarri gara; baita ere presidentetzara heltzeko bideari, komunikabideen eta Macronen arteko harremana ezin delako isilean atxiki.

## JENOFA BERHOKOIRIGOIN

**H**itza kontrolatzeko asmoz prentsa askatasuna zangopilatu zuen lehendakari gisa oroituko dugu Emmanuel Macron. Frantziako Legebiltzarrean bozkaturiko “Segurtasun globala” deitu lege proposamena dugu horren adibide: poliziaren gehiegikerien irudiak “fede txarrez” zabaltzeko debekua kazetarietarako; manifestazioak kubitzeke prentsa karta ukaitearen obligazioa; eta lekuak husteko manua eman ondoren bertan gelditzea delitua bilakatu da kazetariarentzat.

Ez da ordea prentsa askatasuna bermatzen duen 1881eko legearen kontra Macronek egindako eraso bakarra. Komunikabideen esfera aldatu da Eric Stemmelen estatistikalari eta komunikabideen arloan ere egondakoak ohartarazten duenez: berriki arte kazetaritzaz interesaturiko batzuk ziren komunikabideen jabeak, orain oligarken eskuetan dira. Horrek ondorioak ditu, demokratikoki hautatua izan behar litzatekeen esfera politikoreen osaketaraino.

Stemmeleneke xeheki aztertu du 2012tik goiti –hau da, 34 urterekin orduko François Hollande presidentearen idazkari orde ezezaguna izateatik– 2017ko presidente izendatzerainoko Macronen bidea. Emaitza *Opération Macron* (Macron operazioa) liburu da; tamalez –baina inolako kasualitatekerik gabe– komunikabideetan kasik aipamenik gabekoa. Interesgarria da begiratzea inork ezagutzen ez zuen gatzetxo ba-

tek nola hain denbora laburrean lortzen duen Frantziako presidentearen aulkia. Elementu saihestezina xeheki aztertu du: komunikabideen jarraipena.

Zenbaki bat eta bakarra: 2015eko urtarriletik 2017ko urtarrilera *Libération*, *L’Obs*, *Le Monde* eta *L’Express* prentsek 8.000 artikulua baino gehiago argitaratu zituzten Macron aipatuz, eta hamarnaka komunikabideren azalak ere egin zituen –prentsa arrosa, ekonomia prentsa zein prentsa orokorra, guztienak–. Ofizialki ez zen oraindik hautagai. Ezkerreko Jean-Luc Mélenchon, Arnaud Montebourg eta Benoît Hamon hautagai potentzialek hiruen artean baturiko artikulua kopurua baino gehiago zituen. “Hastapenean legenda polit bat zabaldu zuten, egiari zor, gezurrez hanturikoa”, Stemmelen hitzetan. Denetarik erraten eta idazten zen; hori bai, kritika guti eta lore anitz: “Berpiztea”, “modernitatea”, “haize freskoa”, “erromantikoa”, “filosofoa” –“anti-sistema” baina aldi berean “Rothschildentzako bankari”, kontraerarranaren beldurrik gabe, gainera–.

Soa artikulua hauetatik komunikabideen mapa orokorragora *deszoomatzea* beharrezkoa dugu. Frantziako komunikabide arras gutti dira independenteak: prentsaren %90 hamar oligarken esku da eta telebista eta irratien sektorean ere tendentzia bera da. Izen batzuk? Bernard Arnault –munduko laugarren pertsona aberatsena, 76 bilioi dolarreko aberastasuna–, Patrick Drahi –7,1 bilioi

dolarreko aberastasuna– eta Vincent Bolloré –5,7 bilioi euroko aberastasuna, Frantziako hamazazpigarren aberatsena–. Planetak lerrokatu balira bezala, hiruk dira Macronen lagun handiak.

## **KOMUNIKABIDEAK, MILIONARIOAK ETA MACRON, ESKUZ-ESKU**

Politika lagun arteko tratua bat izan ote zen? Seguruena. 2012an oligarken haserre piztu zuen aberatsenak gehiago zergapatzeko Hollanden xedeak. Laster begiztatu zuten Macron gaztea, gobernura sartu berria, bere ideia ultra-liberalekin eta dirudunez osaturiko lagun sarekoa: “Nik ezagutzen dut bat: Emmanuel Macron; lagundu behar dugu”, erran omen zuen Arnaultek, Marc Endeweld idazleak azaltzen duenez, –*Le Grand Manipulateur: les réseaux secrets de Macron* (Manipulazaila handia: Macronen sare sekretuak) liburuaren egilea da–. Segida ezagutzen dugu: sektore publikoaren eta orokorki Probidentzia Estatuaren desegitea eta aberatsenen mesederako zerga-politika.

Baina komunikabideen jabeak lagun izateak ez du erran nahi etxea erabat kontrolatu dezakeenik. Eta zailtasunak ditu errealitate horrekin Macronek. 2018ko uztailaren 24an kazetaritzari buruzko adierazpen publiko batean argiki ondorioztatu zuen: “Egia bilatzen duen kazetaritzarik ez da gehiago” eta “botere judizial izan nahi lukeen botere mediatikoa daukagu”. Nonbait arrazoi



### “SEGURTASUN GLOBALA” LEGEA

KAZETARIEN ETA ARGAZKILARIEN ARTEAN HASERREA ERAGITEN DU FRANTZIAKO PARLAMENTURA HELDU BERRI DEN LEGE-PROPOSAMENAK. BESTEAK BESTE, POLIZIAREN INDARKERIAREN BERRI EMATEKO BIDEA MUGATZEN DIELAKO. ARGAZKIA: V. BELLONI.

du, guztia kontrolatu nahi lukeen presidentearen egiara ez garelako mugatzen eta ikerketa-kazetaritzaren premia ezinbestekoa delako interes ekonomiko zein politikoak hainbeste nahastekatuak diren garai honetan.

### URRATSEZ URRATS, PRENTSA ASKATASUNA ERASOTUZ

CDJM Komunikabideen Deontologia eta Mediaziorako Kontseilua sortu duen presidentea dugu ere Macron, eta horrek anitz erran nahi du. Nahiz eta ofizialki errana izan “autoerregulaziorako egitura independentea” dela, gobernuak eskaturik sortu zen iaz, ofizialki herri-tarrek komunikabideei begira duten mesfidantzari aurre egiteko. “Zepo” bat hainbat komunikabideek izenpeturiko gutun batean errana den bezala. Izen-

petzaileen artean *L'Express*, *Le Figaro*, *Franceinfo TV*, *Le Point*, *TF1*, ala beste; hots, bere lagun oligarken esku direnak. Jabeen eta kazetarien artean mundu bat delako eta azken hauek prentsa askatasunari lotuak direlako.

“Alarma gorria pizturik den testuinguruan kokatzen da CDJMaren sorrera. Arduradun politiko askok prentsaren aurka egin adierazpenez gain, Emmanuel Macronen bozketaz geroztik pasatako bi lege ditugu, prentsa askatasuna eta herritarrek informatzeko askatasuna bermatzen duen 1881eko legearen saihebidetaren direnak”, irakur daiteke adierazpenean. Batetik, Macroni esker bozketa garaietan kazetarien informazio bat “faltsua” dela ondorioztatu dezake magistratu batek, inolako prozedurarik gabe: zentsura, nolazpait. Bestetik, iker-

keta kazetaritzarentzako oztopo handia den lege bat pasa zuten ere 2019an, *lanceur d’alerte* edo barneko informazioaren kontrako neurri gogorra: orduz geroztik lege debekaturikoa dute baimenik gabe dokumentuak ala dena delakoak eskuratzea. Alta, 1881eko legeak zekarren komunikabideei iturria sekretupean atxikitzeko eskubidea. Nonbait horri lotua zen *Mediapart* komunikabide independenteak iazko otsailen pairaturiko miaketa. “Macronen desbideratze autoritarioa” salatu zuen *Mediapart*-ek biharamuneko prentsaurrekoan.

Legebiltzarrak alde bozkaturik, Senatura helduko da urtarrilean “Segurtasun globala” lege-proposamena. Anartean, herritarren manifestazioek segitzen dute, baita poliziaren gehiegikeriek ere. Kazetariak hala diote behintzat. ●

ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hernani 23 - 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com